



Prensa oharra
2021eko ekainaren 30

ANABACek Marine Stewardship Council ziurtapena eskuratu du ozeano Atlantikoko hegahoriarentzat

**MSCren ziurtapena jasotzen duen lehenengo atunontzien elkarte
europarra da.**

**ANABAC elkarteak ozeano Atlantikoko ur azalean arrantzatutako
hegahoriaren ziurtagiria lortu du.**

la urte beteren ondoren, *Asociación Nacional de Armadores de Buques Atuneros Congeladores* (ANABAC)-ek MSC ziurtapena lortu duela eman du jakitera *Marine Stewardship Council* (MSC)-k ur azalean arrantzatutako ozeano Atlantikoko hegahoriarentzat (*Thunnus Albacares*). Atunontzien armadoreen lehenengo elkarte da MSCren arrantza estandarpeko ziurtagiria lortzen Europan.

Prozesua 2020ko ekainaren 30ean hasi zen iragarpen publikoarekin eta *Announcement Comment Draft Report* (ACDR ingelesezko siglengatik) deritzolako aurretiazko lehenengo diagnostikoarekin. Gerora, prozesuak MSCren estandar zorrotza jarraitu duen beste edozein ebaluaketa osoren pausu berberak jarraitu ditu: pareen berrikusketa, lekuko bisita, parte interesatu guztiek egindako alegazioen aurkezpena eta MSCren webgunean publikatutako erdibideko agiri desberdinen argitalpena.

Hegahoria (*Thunnus albacares*) ATUNSA eta PEVASA enpresa taldeen jabetzako Egaluze, Alboniga, Zuberua, Playa de Noja, Playa de Bakio, Playa de Ris eta Playa de Azkorri atunontziek harrapatzen dute eta ziurtagiria azaleko arrantza deritzon arrantza modurako lortu da (objektu flotatzaileekin egiten den arrantza modua ez da ziurtapenean sartzen). la hamabi hilabeteko ebaluaketaren ondoren eta MSC estandarpeko denik eta arrantza auditoretzarik zorrotzena arrakastaz gaindituta, arrain horrek MSCren zigilu urdina eraman ahal izango du, arrantzaren jasangarritasuna frogatu delako.

Mundu zabalean onartzen da MSCren arrantza estandarra arrantzaren jasangarritasuna neurtzen duen ebaluaketa prozesurik gogorren eta sinesgarrien moduan. Estandarra hiru printzipio nagusitan oinarritzen da: arrainen populazio osasuntsuak; itsas-ingurugiroan, bere osotasunean, arrantzaren eragina minimizatzea; eta arrantza kudeaketa sistema eraginkorra. ANABACen ziurtapena Bureau Veritas ziurtagiri-emaile independenteak burutu du, aipatutako hiru printzipioei jarraituz.

“ANABACen flota euskal arrantza industriaren parte historikoa da eta gure herriko altura handiko arrantzan ezinbesteko eragilea. Eusko Jaurlaritzak ziurtapen honi laguntza eta babesa eskaini dizkio eta asko pozten da euskal arrantza sektorea jasangarritasunaren abangoardian mantentzen delako; ingurumen, higiene eta osasun, lan-arlo eta kudeaketa eta kontserbazio neurrien betetze estandar gorenen abangoardian.”

Bittor Oroz, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea

“Bermeo atunaren munduko hiriburu bada, gure pertsonen, enpresek eta erakundeek barneraturik dutelako da atunaren balio katearen oraina eta etorkizuna ANABACek gaur lortu duen helburuaren moduko helburuak lortzean daudela.”

Ignacio Serrats, Bermeo Tuna World Capitaleko lehendakaria

“ANABAC elkarte eta ATUNSA eta PEVASA enpresak zoriontzen ditugu, Atlantikoko hegahori harrapaketen ziurtagiria lortzearen. Hegahoria Espainian gehienetarik kontsumitzen den espeziea da eta nahitaezkoa da jatorri jasangarrietatik datorrela ziurtatzea. Zalantzarik gabe, ANABACek emandako pausua berri ona da ozeanoentzat eta arrainaren kontsumo arduratsuaren beharraz kezkatuak dauden hiritarrentzat.”

Laura Rodríguez, MSC Espainia eta Portugalgo zuzendaria

“Arrainak bateratzeko dispositiborik gabe harrapatutako Atlantikoko hegahoriarentzat lortu dugun MSC ziurtagiri hau aurrerapauso handia da gure flotaren harrapaketa guztiak ziurtatzeko bidean. Prozesu konplexu eta zorrotz hau burutzea, ANABACeko elkartekideentzat, gure kudeaketa eta produkzioaren gardentasun ariketa da. Arrantza arduratsu eta jasangarriarekin dugun konpromisoa frogatzeko modu argia da: arrain-baliabideen jarraipena eta geure aktibitatearena bera bermatuko duena etorkizuneko kontsumitzaile eta arrantzale belaunaldientzat.”

Borja Soroa, ANABACeko lehendakaria

– AMAIERA –

Komunikabideentzako kontaktua

Asun Talavera, MSC Espainia eta Portugalgo prentsa arduraduna:
asun.talavera@msc.org; tel.: +34 676 016 630

Nekane Alzorritz, ANABACeko zientzia aholkularia nekane@anabac.org; tel.: +34 94 688 28 06

Marine Stewardship Council (MSC)

Marine Stewardship Council (MSC), oinarri zientifikodun eta mundu mailan ezagun diren arrantza jasangarri eta arrantza produktuen trazabilitate estandarrak ezarri dituen irabazi-asmorik gabeko nazioarteko organizazioa da. MSCren zigilu urdinak eta ziurtapen programak arrantza praktika jasangarriak aitortu eta saritzen dituzte eta, horrez gain, itsasoko produktuen merkatu jasangarriago bat sortzen laguntzen dute. ISEAL, Lan eta Ingurumen Akreditazio eta Etiketaziorako Nazioarteko Aliantza, eta Nazio Batuen Nekazaritza eta Elikadurarako Erakundeko (FAO) ezarritako praktika onen baldintzak betetzen dituen arrantza ziurtapen eta etiketa ekologiko programa bakarra da. Informazio gehiago jasotzeko, bisitatu gure weba [msc.org](https://www.msc.org)

Asociación Nacional de Armadores de Buques Atuneros Congeladores - ANABAC

ANABAC atunontzi izoztaileen armadore elkarerik zaharrena da Espainian. 1977tik, arrantza kudeaketa eta aholkularitzako munduko, Europako eta maila lokaleko foro desberdinetan partaidetza zabala izan du, elkartekideen interesak defendatuz. Eratu zenetik, arrantza tradizio handiko herria den Bermeon izan du egoitza eta gaur egun ATUNSA, PEVASA eta ECHEBASTAR talde armadoreak batzen ditu. Armadore talde horiek Atlantiko eta Indiako ozeanoetako uretan atun espezie tropikalak arrantzatzen dituzten 19 atunontzi izoztaileren jabe dira. Atuna, nazioarteko uretan eta kostaldeko zenbait herrialderen Zonalde Ekonomiko Esklusiboetan igeri bizi den, arrain espezie oso migraria da.